

EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEAREN JAKINARAZPENA

Gaur, abenduak 12 (asteazkena), Euskal Herriko Unibertsitatearen 2007/2008 ikasturteko lehenengo Klaustroan errektorea bere gobernutaldearen iazko ikasturteko gestioari buruzko azalpenak ematen ari zela, ehun lagunetik gorako ikasle-multzo bat oldarka sartu da aretoan eta ekitaldia egiten ari zeneko oholtza hartu du.

Errektorea aretotik atera da, Klaustroko kide gehienak bezala. Ikasle-multzo horrek aretoa hartuta eduki du hamabost minututik gora, Bolognako prozesuaren eta euskal unibertsitatearen aurkako kontsignak botatzen zituen bitartean. Denbora-tarte hori iragan ondoren, ikasleek atzera egin ez dutenez, errektoreak ekitaldia bertan behera uztea erabaki du eta horrela jakinarazi die aretotik kanpo zeuden Klaustroko kideei.

Jazoera hauek kontuan hartuta, UPV/EHUko Errektoregoak honakoak adierazi nahi ditu:

Ikasle-multzo horrek unibertsitatearen borondatea ordeztu ez ezik, legezko organoen bidezko borondate horren adierazpena ere eragotzi du. Honelako gertaerak onartezinak eta, hortaz, gaitzesgarriak; izan ere, UPV/EHUko erakunde-bizitzaren garapen normala galarazten dute.

Euskal Herriko Unibertsitateak ez ditu inolaz ere ekintza horiek onartzen eta ez die horrelakoei men egiten. Horregatik Errektoregoak oraindanik adierazi nahi du aurki Klaustroarako beste deialdi bat egingo duela, unibertsitate-bizitzak ezin duelako izaera honetako ekintzen menpe egon, ekintzon jatorria edo motibazioa edozein delarik ere. Ondorioz,

UPV/EHUK beharrezkotzat jotzen dituen neurri guztiak hartuko ditu hurrengo Unibertsitate Klaustroa behar bezala burutu dadin.

Errektoregoak eskerrak eman nahi dizkie gaur erakundearekiko erantzukizuna azalduz Areto Nagusira bertaratu diren Klaustroko kide guztiei, erakutsi duten jarreragatik. Eta, aldi berean, erakunde-normaltasunezko erantzun garbia eman dezatela eta unibertsitatearen borondatea erakusteko bide demokratikoen aldeko apustua egin dezatela eskatu nahi die, hurrengo deialdiari prestasun berdinarekin erantzunda.

Leioan, 2007ko abenduaren 12an